

- FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoak diren baliabideak.

Ondoko kategoriatan banatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Hasteko, baliabide fisikoen barruan lokala alokatzea eta chip-ak egiteko beharrezkoak diren materialak eta makinaria erostea da. Horretaz aparte, giza baliabideetan, enpresan lan egingo duten pertsonak sartzen dira. Gure kasuan, enpresa aurrera joan dadin, informatikariak egongo litzateke. Hauek, modalitate desberdinetan espezializatuta daude. Adibidez, ingeniari informatikoek chip-ak sortzearen ardura izango dute eta diseinuan espezializatutako informatikari batek, online denda sortzearen ardura izango du. Gainera, koordinatzaile bat izango dugu, online denda antolatuko du eta dena behar den moduan funtzionatzen dela ziurtatuko du. Guk, enpresaren jabeak, osagarrien diseinuan lagunduko dugu, gure gustuen iritziak emanaz, eta enpresaren kontabilitatea bananduko dugu; izan ere, gutako batek ekonomia ikasketak ditu.

Bigarrenik, langileak kontratatuko ditugu chip-ak osagarrietan sartzeko, ez dute titulazio berezirik, guk hautatuko ditugu elkarrizketa baten bidez.

Azkenik, teleoperadoreak izango ditugu kexak ebazteko erantzukizunarekin. Haien telefonoaren bidez edo mezu elektronikoaren bidez bezeroen galderak erantzungo dituzte.

Finantza baliabideak, hurrengo puntuan (kostuen egiturari) aipatuko ditugu.